


# Eraztun berdeetatik gerriko agroekologikoetara

**Laburpena:** Lehenengo sektorea hiriaren bizitzatik erabat baztertu dugu. Hirien eraztun berde kontzeptutik gerriko agroekologikora igarotzea proposatzen da. Agian, eremu hori urbano edo urbanizagarriaren limite berde hutsa izatetik hiriaren eta landaren edo basoen arteko trantsizio produktiboa izatera.

**Hitz-gakoak:** Agroekologia, Elikadura-Burujabetza, Eraztun Berdea, Trantsizioa

**Abstract:** The first sector has been completely set apart from the life of the cities. We suggest moving from the concept of green ring towards the agroecological belt. Namely, stop conceiving it as mere limits for development to become, instead, a productive transition between the city and the fields and forests.

**Key words:** Agroecologic, Food Sovereignty, Green Ring, Transition



Mikel Valero Alzaga<sup>1</sup>, Iker Eizagirre Zufiaurre<sup>2</sup> eta Carlos Renedo Lara<sup>3</sup>

<sup>1</sup> Arkitektoa, <sup>2</sup> antropologoa eta <sup>3</sup> hirigilea, Hiritik AT-eko langile-bazkideak.

Jasotze data: 2018-11-26

Onartze data: 2018-12-19



Mendebalde kapitalistan, 1973. urtetik aurrera agerikoa egiten hasten den eredu fordistaren krisia 90eko hamarkadan «globalizazio» izenez ezagutzen dugun prozesuaren abiapuntutzat har dezakegu (Harvey, 2005). Aldaketa askoren artean, prozesu horrek modernitateak egonkorturiko eskalen aldaketa sakona ekarri du Giddensen hitzetan (1990). Euskal Herriko hiri-posiziotik, auzo, hiri, eskualde, probintzia, erkidego eta estatuaren arteko harremana era hierarkizatu eta egonkor batean egun ulertzea ez da nahikoa, praktikan, materialki ez baita horrela gertatzen. Erregio berriak sortzen ari dira Europar Batasunarekin elkarrekintza zuzenean (EuroHiria kasu), mundu-mailako zenbait fenomenok zuzenean zeharkatzen dituzte gure auzoak, estatuak garrantzia galdu ez badute ere, subiranotasun-kuota garrantzitsuak lotu dituzte EB-proiektura (udalerrietako eskumen asko eskala horretatik arautuz), etab. Labur, eskala ezberdinek sakonki gurutzatzen dute elkar, lekukotasunaz dugun ideia eta esperientzia eraldatuz (Azkarraga, 2011). Lurraldea ulertu eta ekoizteko aintzat hartu beharreko testuingurua osatuz.

Hemen agertu nahi dugun tesirako, bi eremutan du horrek garrantzi izugarria: hirigintzan eta elikadura-ereduan.

Mundu-mailako botere-artikulazioaren prozesuan maila ekonomikoan kapital finantzarioaren nagusitasuna ezin da ahaztu, eta maila politikoan, gure testuinguruan kapital horren mugikortasun eta kontzentrazioa errazteko merkatu/eskala politiko berrien artikulazioa: Europar Eremu Ekonomikoa. Saskia Sassen soziologak baldintza horiek markatzen ditu «hiri globalez» osaturiko botere-sarearen emergentziak hitz egiteko (2010). Aipatu eskala-

aldaketa horren barruan, boterea (ekonomikoa/politikoa) kontzentratuko luketen nodo interkonektatuak. Hirigintza eta lurralde-antolaketaren ikuspegitik, polo erakarle handiak, zeinak populazio eta kapital ezberdinen (ekonomiko, sozial, kultural zein sinboliko) erakarle lirakeken, aspalditik ezagutzen ditugun metropolizazio-prozesuak areagotuz testuinguru batzuetan eta abiatuz beste batzuetan. Lurralde-antolaketarako botere-paradigma bat ekarri. Bide batez, eta ekologia politikoaren irakasgaiak ekarri, erreproduzitzeko lurralde oso zabalen baliabideak xurgatzen dituzten giza asentamendu motak. Horien artean, nola ez, elikagaiak.

Elikaduraren ikuspegitik, II. Mundu Gerraren ostean eskala globalean aplikatu nahi izan zen «iraultza berdeak» gerora etorriko zen globalizazio-prozesuarekin guztiz bat egiten duela ikus dezakegu. Gosearekin amaitzeko lemapean, munduko periferian petrolioaren deribatuetan, kimikoetan eta lanaren antolamendu kapitalistan oinarrituriko inbertsio handiak sustatu ziren, bide batez, tokian tokiko lan-antolaketa komunitarioko sistemak «azpi-garatu»tzat joz eta deseginez (Hiritik At, 2017). Horrek produktibitatea handitzea ekarri zuen noski (naturaren gainustiapen batekin), mundu-mailako lan-banaketan sakondu zuen, eta gure testuinguruan gure elikagaiak ekoizteko beharrik ezaren ideia egonkortzeko baldintza materialak ezarri zituen. Hobe zen gure ekoizpen-modu tradizionalak ondare kultural folklorikoaren kutxan gordetzea eta mundu-mailako merkaturian gainbalio handiagoa zuten merkantzia industrialetan zentratzea. Inportatuko dugu, merke, jateko behar duguna gero.

Bi ardatz horietan aurrera, espazio eta jendartea ekoizteko paradigma kapitalista baten barruan, egungo egoerara iritsi

gara: Euskal Hiria eredu eta elikadura-menpekotasun erabatekoa. Gero eta argiago ikusten ari garenez, bizitzaren kontra doan eredu. Baina ondotxo dakigunez, dominazio eta opresio orok dakar erantzuna, botere-espresio orok du dimensio sortzailea. Batzuetan agerikoa, beste batzuetan ikusezina eta beste batzuetan mozorrotua.

Hemen, erantzun horren bi elementu jarri nahi ditugu mahai gainean, artikulu honetan defendatuko ditugunak:

1. Lurralde-antolaketaren eredu autozentratua (Etxezarreta, 2016): Mundu-merkatuaren mozkinak nola atera begira dagoen lurralde-antolaketa alderantzikatuaren aurrean, lurraldeko potentzia instituzional, ekonomiko eta soziokomunitarioetan oinarritzen den eredu, zeinak behar eta desira sozialei aurre egitea duen motor nagusi.
2. Gerriko agroekologikoak: lurralde-ereduaren klabeetako bat bi aspektu nagusitan:
  - Ekonomikoan: Lurraldeko ekonomia bertako bitzta erreproduzitzeko jarduera eta produktu guztien multzo bezala ulertzen badugu, ezinbestean eredu autozentratu batean, oinarritzkoa den elikadura-burujabetzaren kuotak irabaztera joan behar dugu. Estrategikoa den funtzio soziala betetzen duelako, eta gertuko eremuekin artikulatuz balio-kate nahiko motz eta lurraldetuak sortzeko baldintzak ematen dituen sektore bat delako. Horretarako, lurralde-antolaketan leku bat eman behar zaio, eta guk hori hiri-asantamendu orok pentsatu beharko lukeen gerriko agroekologikoan kokatzen dugu.
  - Ekologikoan: Egungo lurralde-ereduak eta hirien disposizioak ez du kontuan hartzen kokatzen diren lurraldearen matrize biofisikoa eta bertan dauden ekosistemen arteko konektibitate ekologikoa (March, 2018). Eremuak «babestean» oinarritzen dira ulertu gabe denak konektaturik funtzionatzen duela, eta hiria ezin dela zubi ekologiko denak deuseztatzen dituen asentamendu bat izan. Egiteko horretan, eremu peri-urbanoei berebiziko garrantzia dute eta hor gerriko agroekologikoak asko du esateko zubi, konektore ekologiko funtzio horretan.

### **Gerriko agroekologikoa: lurralde-eredu autozentratu baterako esku-hartze estrategikoa**

Gure aburuz, eta lurralde-antolatzailearen *Advocacy planning* (Mayorga, 2018) paradigmak dioen bezala, planifikazioak lurraldean dauden potentzia eta tendentzia posibleetan hartu behar du oin, horiek gauzatu daitezkeen baldintza ahalik eta onenak sortzeari begira. Eta kasu honetan, gu ez gara abstrakzioetik abiatzen. Izan ere, azken urteetan gure hirietan baratzeak eta elikaduraren ekoizpena integrazteko proposamenak areagotu dira: baratze-parkeak, teilatu berdeak, fruta-arbolak hirietan, etab. Proposamen horiek hiri jasangarriagoak eta bizigarriagoak eraikitze bidean kokatzen dira eta soluzio interesgarriak ekartzen dituzte, batez ere, nekazaritza hirietara hurbiltzeko, askotan aisialdi-klabeetan baldin bada ere. Indartu beharreko tendentziak, jasangarritasun eta elikadura-burujabetzaren ikuspegitik.

Hala ere, ez dira nahikoa lehen sektoreak eta landa-eremuak bizi duten gainbehera ekiditeko. Ez dira nahiko, arestian aipaturiko kontrako egiturazko baldintzak gainditzeko.

Izan ere, landa-eremuaren eta baserrien egoera makala da EuroHiriaren eta elikadura-inportazioaren euskal paradigmaren. Euskal Herrian kontsumitzen ditugun produktu gehienak Euskal Herritik at ekotzi dira, eta batez beste, elikagai horiek 5.000 km-ko «bidaia» egiten dute gure ahora iritsi baino lehen (Biolur). Horrek inpaktu handia du gure ekonomian, batez ere lehen sektorean, kulturaren eta, nola ez, lurralde-antolaketan: gure hirietan baratze-parke edo teilatu berdeak proiektatu edota eraikitzen ari diren bitartean, azpiegitura erraldoiak diseinatu eta garatzen dira hiri horiek konektatu eta kanpotik hornitzeko. Egungo hirigintza-ereduan, metropolizazio eta eskala handiko merkatuen integrazio materialak dira determinanteak, besteak proiektu esperimentalizat eta kasik anekdotikotzat hartzen diren bitartean.

Bestalde, inguru hurbiletik hiria elikagaiez hornitzeko beharrik ez dugunez, landa-eremuetan jartzten den arreta oso txikia da. Gure hirien planifikazioen mapetan oraindik kolore gabeko espazioak dira. Urbanizaezinak. Askorentzat hedapenerako aukera-eremuak dira, nahiz eta aspaldi gainditu genuen gure hiriek izan behar luketen muga.

Arazoa enfokatu beharrean gaude. Nazio Batuen aurreikuspenen arabera, 2050erako populazioaren %66,4 hirietan biziko da (Ribera, 2018), eta Euskal Herria ez dago tendentzia horretatik at. Egungo hirigintza- eta merkatu-ereduarekin, horrek esan nahi populazio-masa izugarriak egongo direla oinarritzkoa den elikadurarekiko menpekotasun-egoera sakon batean. Hiriek, asentamendu dentso eta dentsifikatu bezala, gero eta lurralde handiagoak azpiratu beharko dituzte beren logikan beharrezko duten elikadura-baliabideez hornitzeko. Eta horrek sekulako kostu ekologikoa duela ezin dugu ahaztu (mundu-mailako garraio-sistema mantendu eta energiak hornitzea) petrolioaren ustiapen-gaina dagoeneko joa dugun testuinguruan. Gure hiriak eta lurraldea elikadura-burujabetzaren bidean kokatu behar ditugu beraz. Hiri autarkikoen zentzugabekeria erori gabe, baina bai planifikaziorako ipar bezala.

Horretarako beharrezkoa da eskalaz aldatzea, eskala-aldaketa horrek agerian utziko duelako aipatutako paradoxa. Hiriak inguratzen dituzten landa-eremuak sakonki aztertu behar dira HAPOetan eta lurralde-planetan, baina ez soilik eraikuntzarako lurren erreserba edota aisialdirako esparru bezala, baizik eta lehen sektorea biziberritzeko aukera bezala. Hiria jasangarriagoa egiteko hiri mistoak hiri bizigarriagoak direla aldarrikatzen badugu, zergatik bazterten dugu lehenengo sektorea hirietan bizitzatik? Zergatik planteatzen ditugu oraindik kontrajarriak izango balira moduan?


Lurraldea elkarrekintzan dago, hiriak produktu sozio-natural bat dira natura produktu antropiko bat den moduan (March, 2018). Eta beraz, lurralde-eredu autozentratu baten bila elkarrekintza etengabe dauden osotasun baten parte bezala ulertu behar dira natura eta hiria.

Periferia horretan dagoena ondo aztertu behar da. Egun badaude ortu informalak, urbanizazio-hedapenean

## BILBO GERRIKO BERDETIK GERRIKO AGROEKOLOGIKORA

El cinturón verde de Bilbao pretende ser un espacio natural de ocio y esparcimiento para la ciudad: parques forestales, zonas de recreo, senderos, rutas...

Azpiegitura hau oinarri hartuta, erabilera berriak proposatu nahi ditugu **gerriko agroekologikoa** sortuz.



Irudia ~ Bilboko eraztun berdearen eskema.  
Egilea ~ Hiritik AT.

desagertzen diren lehenengoak, inongo miresmen barik. Gero eta gehiago trantsiziozko espazioak planteatzen dira, hiri- eta landa-eremuen arteko espazioak, ekipamendu berdea edota eraztun berdeak. Askotan funtzio zehatzik gabe. Erabili gabeko baserriak eta lurak topatu ahal ditugu, haien ekoizpen-funtzioa betirako galtzera kondenatutakoak. Ez lekuak ere hor kokatzen dira, amaitu gabeko makroproiektuen aztarnak edota anbizio-garaietan planteatutako orubeak. Urbanizazio lauso (Borja, 2018) bat ekiditeko kontuan hartu beharreko espazioak. Kasuistika plurala da eta hortaz periferia horren planifikazioa modu egokian egiteko zenbait tresna berri beharrezkoak izango dira.

Ezinbestekoa izango da, besteak beste, herriz herri lur produktiboen eta baserrien errolda egitea edo erabili gabeko lurak eta baserriak aktibatzeke planak egitea. Hirigintzan ezagutzen ditugun kontzeptuak egokitu beharko ditugu eta segur aski kontzeptu berriak asmatu beharko ditugu.

Hainbat hiritan modan dagoen eraztun berde kontzeptutik gerriko agroekologikora pasatu behar dugu, pertsonak eta natura zainduko dituen nekazaritza-eredu bat proposatuz. Urbanoaren edo urbanizagarriaren limite hutsa izatetik hiriaren eta landaren edo basoen arteko trantsizio produktiboa izatera. Horrela, gerriko agroekologikoek ahalbidetuko lukete:

- Hirien elikadura-menpekotasuna lausotzea eta, hortaz, haien jasangarritasuna hobetzea.

- Lurraldeturiko balio-kateen barruan esparru ekonomiko berriak irekitzea.
- Hirien eredu peri-urbanoak landu eta hiriak konektore ekologiko berriez hornitzeko baldintza berriak sortzea. Hots, ikuspegi ekologikotik, lurralde-metabolismoaren ikuspegitik hiri-natura harremana hobetzea.
- Zerbitzu ekologiko hobetuak gertuko paisaiaren eta aisialdiko eremuen ikuspegitik.

Dakigunez, praktikaren bidez baldintzak sortuaz dago aukera aldaketa sakonagoak planteatzen jarraitzeko. Gure aburuz, gaurtik ukigarriak diren onurak lituzke gerriko agroekologikoaren paradigma lurralde-antolaketan txertatzen joateak, eta, esan dugun bezala, lurralde-paradigmaren eraldaketan sakontzeko baldintza berriak sortuko lituzke.

///

## OTXARKOAGA GERRIKO AGROEKOLOGIKOA



Irudia ~ Auzo baten gerriko agroekologikoa eskema.  
 Egilea ~ Hiritik AT.

## Bibliografia

Ibarra, P. eta Cortina, M. (koord.) (2011): «Recuperar la radicalidad». Hemen: <<http://www.juancarlosmonedero.org/wp-content/uploads/2011/11/Recuperando-la-radicalidad.pdf>>.

Etxezarreta, M. (2016): «La economía real del s.XXI», in O. Arcía (koord.), *Aproximación a la economía crítica para entender y actuar*, Baladre y Zambra, Malaga.

Harvey, D. (2005): *Breve historia del neoliberalismo*, Akal, Bartzelona.

Hiritik AT (2017): *Beterri. Nekazaritza eta berrikuntza soziala*, Beterri Buruntza Udalak, Hernani.

March, H. (2018): *Ecología Política*, UOC, Bartzelona.

Mayorga, M. (2018): *Planeamiento y crisis urbana, evolución y experiencias*, UOC, Bartzelona.

Ribera, R. (2018): *Urbanismo global*, UOC, Bartzelona.

Sassen, S. (2010): *Una sociología de la globalización*, Katz, Madril.

Biolur (2018): <<https://www.biolur.net/eu/inicio>> Bistaraturako eguna: 2018/12/15.